

IZENIK GABEKO BESTE BAT

Iratxe Esnaola
Donostia, 17 urte

Izenik gabeko kaleren batean xahutu nituen ilunabar hartako eguzkiaren azken printzak, eta nik orduan jakin ez arren, etorkizunak ilunabar gorritz dindatuko zituen ordurarte isilik zeuden nire desioaren erreka garbiak. Oroitzen naiz kalean zehar nindoala. Kalean zehar nindoala. Dena beti bezela zegoen. Izenik gabeko kale hartan izenik gabekoak ziren etxebizitzak. Mila bider ikusitako horma zikinak, zenbakiak ahaztuak zeuzkaten portalen atariak, (batean edo bestean sartzean errealtate berarekin topo egingo zenuela adieraziz) faro-la eskasen argi ximela... Klarinete baten melodia entzuten zen, deszifratzeke gelditzen zitzaizkion maitasunaren koblak partitura eskas hartan aurkitu nahian. Izenik gabeko maitalearen kontuak ziren haiek ere. Taberna edo lokal haren parean begira jarri nintzen. Mutil gazte bat neskatila lotsatuari musuka eskua gonapetik sartu nahian. Neskatila desioaren itsasontzian sartzeko portuan zain eta bat-batean amak lehen jaun-hartzen oparitutako Ama Birginaren irudia etorri zitzaion burura. Esku baldarrak goraka jarraitzen zuen.

Semaforoa berdean azkenik eta aurrera jarraitu nuen izenik gabeko itzalekin jolasean; ilargiak oparitutako itzalekin jolasean. Agian klarinetearen melodiari jarraitu nion momentu bate, nik ere

etorkizunaren kartak jiratzean, pozima miresgarria deitzen zioten hartatik trago txiki bat egingo nuen itsaropenez.

Ez zen ustekabeen gertatu; bere presentzia lehendik antzemana nuen, baina han aurkitu nintzen aurre-aurre berarekin: bakardadearekin. Eroetxetik ihes egitea lortu nuen eta nire libertateaz gozatzeko aukera ez nuen galdi nahi. Ez horixe! Zortzi urte! Zortzi urte luze eraikuntza txuri hartatik irteten ez nintzela. Baina, eroetxeko izaki zitalenak lorratza jarraitu zidan eta aurkitu egin ninduen. Aurkitu!

Ez zuen izaera fisikorik, ez usainik, ez ahotsik... baina haren presentzia ezagutzen zuen inor bazen, hura neu nintzen.

Gaztetatik ezagutzen genuen elkar, eta alboko haurrek barre egiten zidaten. Ez zuten ulertzen. Eroa nintzen. Beti izan naiz eroa herri osoarentzat. Eta jakina, gauzak ez ziren asko aldatu eroetxean, larriagotu egin ziren nire kalterako. Bakardadea etsai gorrotagarritzat hartu nuen, eta azkenik, haren albotik ihes egiteko behar latzgarria sentitu nuen.

Eta horregatik, ez zen ustekabeen gertatu; haren presentzia lehendik antzemana nuen, eta han aurkitu nintzen harekin. Pentsatzen nuen, bai, ez zela erraza izango haren kate ikustezinetatik aldentzea, baina errealitateaz nazkatuta daudenen antzera errutinari eustea otu zitzaidan. Horrela, zigarro bat eskaini nion eta bere ohiturazko isiltasunarekin erantzun zidan. Bakardadeaz maitemintzea posible

ote zen sarritan galdetzen nion neure buruari. Egia esan, hura askotan gerturatu zitzaidan isiltasunez jantzitako amodioaren balsa dantzatzuz, baina ezin nuen matie bizidun oroien maitale zena. Izenik gabeko kale ertzek errespetuz begiratzeko zidaten; izan ere, bakardadea baina gauza ala bizidun baztertuagorik eta era berean mirestuagorik ba ote zen bada? Kale kantoien baten aurretik igarotzean, amona zahar zarpail bat antzeman genuen biok. Lurrean etzanda, eurien lehen tangoi maldizioka, manta zikin baten atzean izkutatzen zen. Nire bidai-laguna, hark ni baino behar handiagoa zuela esanez, amonaren ondoan eseri zen “berriz ere egongo gara” irrifartsu bat begiekin ahoskatuz. Libre sentitu nintzen, baina bakardadearen begiak (zenbat edukiko zituen?) bizkarrean itsatsiak nituela jakinez, pausoa arindu nuen.

Kale ezezagun hartara heldu nintzen. Ez nuen ezagutzen ez, baina han zegoen hura, han. Argi dizdiratsuz apaindua agertu zitzaidan lehen aldiz eta apartamendu zikinetan izkutatzen ziren argikusle gezurtien kristalezko bolak ekarri zizkidan gogora. Iluntasun beltz hartan hautsez makilaturiko bonbila haiek koba beltzetako argia, agortutako lurrean jaiotako lorea, basamortuetako hondar ale bakoitzean itsasoratzen zen esperantza ikutua bezala agertu zitzaizkidan. Zeren nork ez zukeen desiratuko etorkizuneko atea irekitzen zuen giltza? Niri giltzaren kopia bat aski zitzaidan: nire bizimodu bizitza duin bat izan beharrean, imitazio bat besterik ez baitzen. Poliki inguratu nintzaion eta

poliki, samurtasun guztiz laztandu nizkion gorpuztaren atalak. Ez zen nik inoiz ezagutu nuen poesia edo maitasun eskutitz bateko pertsonaia; ez zuen, nik nekiela, inongo olerkaririk aitatu, baina lilura pozima magikoaz zertzelaturik ageri zen, margolari eroren batek pintatutako azken flasa, azken argia balitz bezala. Ondoren bere kopetan idatzia zuena irakurri nuen nire belarriak ordurarte ezagutzen ez zuten doinu harekin: *“Etorkizuna iragarriko dizun makina”* Ingurura begiratu nuela oroitzen naiz. Ez dakit jenderik ba ote zebilen, baina nik arima erratuz zipriztindua aurkitu nuen karrika. Niri begira ote zeuden iruditu zitzaidan, baina ez nuen haietako bakar baten begiradarik topatu. Nonbait bihotzeko ispiluak apurtuak zeuzkaten, baina zazpi urteko madarikazioa baina luzeagoa suertatu zitzaien bizi hartako ikusezina, sentiezina... Hal ere, berehala estali zizkidan makinak irudi haiek, nik oparitutako txanponaren ondorioz musika mar-txan jarri zenean.

“Txikitako karruselean nago melodia honen bidesketan, nire zaldi gogokoenaren gainean bidaiatzen. Jirak eta bueltak, jirak eta bueltak eta etorkizuna? Orain etorkizuna papel argienez eta zapore gozoenez hornitutako gozokia bakarrik da, eta bakardadearen balada, urrezko karruseleko musika besterik ez da: niaranara... niaranara...-tprrr-” Makinak itzulitako paper zatiak aldendu ninduen haurtzaroko oroitzetatik. Behatz dardartiz eskuratu nuen eta jada makinako musikarik ezean, historian zehar osatu den musika obrarik

handienak lagundu zidan ekinean: isiltasunaren obra sinfonikoak hain zuzen. Begiak paperari (hain hur zegoen) gerturatu arren, etorkizunari (hain urrun zegoen) begira nengoen supituki. Azkenik, irakurri nuen paper zatia, baina orduan oraindik ez nekien zazpi hitz haiek zer esanahi eduki zezaketen; ez nekien nire eskuetako 44 letra haiek izenik gabeko biografia apalenaren lehenengo kapituluaz azalduko zirela: *“Zure maitalea kale kantoiren batean aurkituko duzu”*.

Barre ero bat irten zitzaidan ahotik. Maitale bat! Zenbat denbora ote zen sexuan eta are eta gutxiago maitasunean pentsatzen ez nuela? Gainera makina batek esandakoaz fidatu behar ote nuen? Bada, bai. Barre eroa isildu eta irribarreari zabaldu nizkion bi ateak. Horrela, irribartsu, paper zatia gorde nuen eta errutinaren olatuetatik aldendu izanaz poztu nintzen. Arima erratuen artetik igaroz, haien bizitzen ahuleziaz barre egin nuen nire berezitasunaz harroturik. Ni, ordurarte eduki ez nuen altxor preziatuenaren jabe bihurtu nintzen, etorkizunaren jabe, itxaropenaren jabe. Eta norberak pentsa zezakeen etorkizuna iragarreko makina batek emandako paperak deus ere ez zuela balio, baina izenik gabeko beste bat izatean, itxaropen hitzak soilik, salneurri oso garestia izaten du.

Izenik gabeko kaleak itxaropenaren kaleak bihurtu ziren, zeren orduan banuen bakardadea estaliko zuen estalkia, banuen kale kantoien batean maitalea aurkitzeko esperantza. Horrela, nire bizitzaren liburuko orrialdeetan, ordurarteko

bakardadearen txuritasuna atzean utziz, letra larriz okupatu nuen txuritasunaren txuria. Hitz batean esateko, etorkizuna iragartzen zuen makina bakarriak emandako paper zatia zen dena.

Ideia hori buruan neramala, kaleetan zehar ibiliz dena kolore argiagoz antzeman nuen. Kaleak nireak bihurtu zirela iruditu zitzaidan. Nireak.

Pausoz pauso, taupadaz taupada oinez jarraitu nuen ene gorputz barnean nabigatzen zuten odol errekek berotu zitzaizkidan unerarte. Begiak irekiak nituela pentsa zitekeen, baina belarriekin aurkitu nuen hura. Ehun bat metro aurrerago egongo zen kale kantoian ikusi nuen nire maitalea izango zena! Ziur nengoen hura zela, begiratu egin baitzidan, eta ni begiradak irakurtzen ikasia nintzen aspalditik. Bi begirada moeta bakarrik zeuden: zurekin bat egiten ez zutenak eta bat egiten zutenak. Eta hain zuzen, haiek nire begiekin bat egiteaz gain, nire gorputzari artikulazioa eta bizia eman zizkioten: panpin eta irudi bat izatetik bizi izatera bultza nindutelarik, txontxongilo bat apal zaharkitu batetik atera, laztandu eta maneiatzean bizia eman izan balidate bezala. Horregatik eman nion hasera korrikaldiari. Irudi lausotu haren atzetik korrika, korrika. Itsututa korrika. Haren ilea laztandu gogoz, haren azala dastatu gogoz korrika. Bistatik galdu nuenean kaleak laberinto bihurtu zitzaizkidan. Azalean irristatzen ziren izerdi tanta guztiak, urteetan zehar anonimatoan isuritako negar malko bakoitza ordezkatu nahi zuten, inor ez izatetik norbait izatera igarotzeko. Arnas estu

bakoitzak txartelean irudikatutako maitalearen gorputzera gehiago hurreratu nahi ninduen, eta korrika jarraitzen nuen. Korrika. Aurrera errutinatik eta bakardadetik ihesi, han nonbait baitzegoen etorkizuna. Kale laberintikoetan mapa bat eskuratu gura nuen hura aurkitzeko, baina maitasuna ez omen dago paperetan idatzia eta bihotzaren iparrari jarraitzea deliberatu nuen. Korrika jarraitu nuen, kale ertz guztiei ea ikusi zuten galdetuz, baina ez nuen erantzunik jaso. Etorkizunak ordu-rarte isilik zeuden desioaren erreka garbiak ilunabar gorriz noiz dindatuko zain. Korrika eta arnastuka karrika guztiak zeharkatu nituen batbatean kale kantoian bi begi haiekin berriro gurutzatu nintzen arte. Azken hamabi pausoak asfaltoan tatuatu nituen oin seinale bakoitzean zorientasunaren hamabi osagaietako bakoitza margotuz. Eta han zegoen han, baina oraingoan ustekabean gertatu zen. Haren presentzia lehendik antzemana nuen, baina han aurkitu nintzen aurrez aurre harekin: bakardadearekin. Iragarritako maitalea bakardadea zen.

Orduan han gelditu nintzen arima erratuz zipriztindutako ingurunean, eta ni beste haietako bat nintzela aitortu beharrean gainera. Errutinaren olatuetatik alde egin nuela pentsatu nuen, baita nire bizitzako liburuaren orrialdeetan hitzen bat agertuko zela ere, maitale bat eduki nezakeela, etorkizun bat eduki nezakeela... bakardadetik ihesi egin nezakeela! Baina ene kondena eternitateraino bakardadeari lotua egotea zen: izenik gabeko

kaleetan izenik gabeko beste bat izatera kondena-
tzen ninduten ilunabar guztietako eguzkiaren
azken printzek.

Eskua eman nion bakardadeari, begietara so
egin nion eta agian etorkizuneko makina, izenik
gabeko kondena, kentzeko norberak eraiki edota
asmatu beharreko zerbait izan beharko litzatekeela
pentsatu nuen, baina ordurako bakardadeak dan-
tatzera gonbidatua ninduen eta isiltasunaren obra
sinfonikoak itzaliak zituen izenik gabeko beste
baten pentsamolde apalak.